

31.5. ADITZONDOAK

Atal honetan leku eta modu aditzondoak baino ez ditugu emango; leku aditzondoetan erakusleetatik erakartzen direnak, arruntak zein indartuak, eta galdetzaileak ikusiko ditugu. Gauza bera egingo dugu modu aditzondoetarako.

31.5.1. Leku aditzondoak

Erakusleetatik erakartzen diren leku aditzondoetan arruntak, indartuak eta berrindartuak bereiz emango ditugu.

Aditzondo arruntak

	HEMEN	HOR	HAN
non	ámen	or	an
nora	óna	órra	ára
nondik	améndik/améтик	órtik	ándik
nongoa	améngue/amékue	orkúe	angúe
noruntz	ónutz/ónuntz	órrutz/órruntz	áruz/árunz
noraino	onáño	orráño	aráño/aráño

Aditzondo indartuak

	HEMENTXE	HORTXE	HANTXE
non	améntxe/eméntxe	ortxe	ántxe/áintxe
nora	onátxe	orrátxe/orráxe	arátxe/aráixe/aráxe
nondik	aménditxik/amétixik	órtitxik/órtixik	ánditxik/ándixik/ándixek
nongoa	amékotxie	orkótxie	angótxie
noraino	ónitxaño/onáxiño	órritxaño	áritxaño

Aditzondo berrindartuak

	BERTAN
non	bértan
nora	bérta
nondik	bertátik
nongoa	bertákue
noraino	bertáraño

Gradu hurbileko era berrindartuak gutxitan baino ez dira agertu: *bertokue*, *bertotik*

31.5.2. Galdetzaileak

non	nun
nora	nora/noa
nondik	nundik
nongoa	nungue
noruntz	nurutz/nuruntz
noraino	noraño

31.5.3. Modu aditzondoak

Ondoko taulan galdetzaileak eta erakusleetatik erakartzen diren modu aditzondo arruntak eta indartuak ikus daitezke

	1. gradukoak	2. gradukoak
selan	olan/onan alan	olantxeik/olantxik alantxik/alantxe
selakue	olakue/onakue alakue	olakotxie/onakoxie alakotxie